

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2024ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna sustatzeko dirulaguntza deialdia onartzea (2024-00276 espediente)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 1ean n egindako bilkuran, 2024ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna sustatzeko udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2024ko martxoaren 4a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea

ELORRIKO UDALAK 2024AN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNA SUSTATZEKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Arau hauen xedea emakumezko eta gizonezkoen aukera berdintasuna indartzera zuzendutako jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, hain zuzen, edozein eremutan emakumeen parte-hartzea, horiei informazioa eta aholkularitza ematea sustatzen duten jarduerak direnean, baita aukera berdintasunari buruz, gizarte osoari begira, kontzientzia hartzea bultzatzen duten jarduerak direnean ere. Deialdi honetan 2024. urtean buruturiko ekintzak lagunduko dira.

2. artikulua. Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza hauek onartzeko dagokion kreditu erabilgarria 3.000,00 eurokoa da. Gastu hau 2024 ekitaldiko aurrekontuko 2301.481.21 diru-ataletik ordainduko da.

3. Artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauek Elorriko elkarteen udal erregistroan izena emana duten elkarteek eskatu ahaliko dituzte eta onuradunak izan ahal izango dira, baldin eta horien helburua gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzea edota emakumeen parte hartzea edozein eremutan bultzatzeko jarduerak egitea baldin bada.

Salbuespenez, eta 2008ko abenduaren 18an Udalbatzaren Ohiko saioan onartutako Dirulaguntzen Oinarri Erregulatzailleen 9. artikularen c) atalarekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzako edota Elorriko Elkartearen Erregistroan izena emateko baldintzatik salbuetsi ahal izango dira Elorriko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak eta proiektuak egiten dituzten taldeak eta entitateak, hala baloratzen bada.

Martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak, 2.4. artikuluan ezartzen du dirulaguntzen onuradun direnek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17.a (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4.a (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dutela, udalaren eta onuradunen arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian.

Zehazki, onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Diruz lagundutako jarduera orok komunikazio inklusiboa erabiltzea, non ez diren erabiliko pertsonak sexu, genero, jatorri edo bestelakoengatik umiliatu, degradatu edo estereotipatzen dituzten irudiak edo idatzizko edozein komunikazio-elementu. Bertintasuna eta pertsonen aniztasuna irudikatzen dituzten irudiak eta hizkuntza bultzatuko dira.
- Memorieta, hala badagokio, onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta generoa bereiztea; baita beraien profila ere: gazteak, adinekoak, aniztasun funtzionaleko pertsonak...
- Erabiliko den material guztietan estereotipo sexistak edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik ez agertzea.
- Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokaera transhomofobikoa saihesteko eta arreta egiteko neurriak izatea.
- Dagokionean, dirulaguntzak jaso dituen proiektu orok genero-ikuspegia aintzat hartzea proiektuaren fase guztietan.



4. artikulua. Onuradun izateko debekua

Ezingo dira onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.

Kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardueran sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo erakundeak.

5. artikulua. Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Eskabide-orriak aurkezteko epea 40 egun baliodunekoa izango da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskaera telematikoki aurkeztuko da www.elorrio.eus webgunean dagoen plataformaren bidez.

2.- Eskabide-orriekin batera (I. erasnkina) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskabide-orria sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia, eta dirulaguntza hau eskatzeko entitatearen ordezkaria dela egiaztatzen edo jasotzen duen agiria
- b) Ogasun Sailean eta Gizarte Segurantzaren zorrik ez duela egiaztatzen duten agiriak.
- c) Zinpeko deklarazioa xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren dirulaguntzak zeintzuk diren zehaztuko direnean, hau da: erakundearen izena eta jasotako dirulaguntza edo eskatutakoa. Baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudia betetzen dela ere. Honetarako II. eranskineko ereduak erabiliko da.
- d) Zuzendaritza Batzordearen karguen zerrenda, generoak bereizita (emakumea, gizona, pertsona ez-bitarra).

3.- Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badute, eskatzaileari 10 (hamar) egun baliodun emango zaizkio falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

4.- Aurreko a) hizkian zehaztutako agiriak ez dira aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorrioko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira. Atal honek aurreikusi duen kasuan, edozein modutan, aipatutako agiri/datu horiek udaletxean daudela jakinaraziko zaio Udalari, aldaketarik ez dela egon jasoko duen zinpeko deklarazio batean.



5.- Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena emoten dio Elorrioko Udaleko Berdintasunerako Sailari udal Diruzaintza sailean udalarenak diren eta ordaindu behar diren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen informazioa eskatzeko.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

1.- Dirulaguntzak jaso ahal izateko, proiektuek gutxienez 30 puntu jaso behar dituzte, eta lortutako puntuen arabera esleituko dira dirulaguntzak, muga delarik deialdi honi dagokion aurrekontu gordailututakoaren zenbatekoa:

30-50 puntu....	eskatutakoaren %60
51-60 puntu....	eskatutakoaren %70
61-70 puntu....	eskatutakoaren %80
71-80 puntu....	eskatutakoaren %90
81 puntutik gora.....	%100

Diru-partida nahikorik ez balego, bakoitzari dagokionaren proportzioa esleituko litzaioke

2.- Dirulaguntzaren kopurua zehazteko, irizpide hauek kontuan izango dira:

- a) Egitasmoaren helburuen interesa, gehienez 50 puntu: indarrean dagoen Elorrioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren helburuekin bat etortzea (20 puntu), aurreikusitako eragina —kuantitatiboa zein kualitatiboa (18 puntu), egitasmoaren berrikuntzak (7 puntu), emakumeentzat edota berdintasunerako egitasmo interesgarriak izateagatik denboran egonkortzen dira (5 puntu).
- b) Berdintasunerako Arloaren ekimenetan edo Udaleko beste arloek eginiko berdintasuna sustatzeko ekimenetan parte hartzea, gehienez 20 puntu.
- c) Beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzea, gehienez 12 puntu.
- d) Betetzen dituen gizarte beharrianak, gehienez 8 puntu: ekintza euskara hutsean egitea (2 puntu); birziklatutako eta kutsakorrak ez diren material eta baliabideak erabiltzea, edota ingurumena zaintzeko egitasmoak sustatzea (2 puntu); jendarte-kalteberatasuneko egoerei erantzutea (2 puntu)
- e) Ekintzak aurrera eramateko entitatearen baliabideak erabiltzea, gehienez 5 puntu.
- f) Jarduera Administrazioak antolatzeke zaila izatea, gehienez 5 puntu.

7. artikulua. Prozedura, Instrukzioa eta Erabakia

1.- Prozedura lehiaketa izango da.

2.- Eskabide-orriak aurkezteko epea itxi ondoren arloko zerbitzu teknikoek aurkeztutako eskabide-orriak eta agiriak aztertuko dituzte eta hasierako balorazioa egingo dute. Balorazio hori Berdintasunerako Informazio Batzordeak txostena eta balorazioa ikusi ondoren diktaminatu egingo du eta Tokiko Gobernu Batzarrera bidaliko du, honek erabakia hartzeko.

3.- Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kidetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, pertsona bakarrek ez bada, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz



4.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Erabakiaren gaineko jakinarazpena interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz egingo da.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatzeko aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzeko Bilboko dagokion auzitegian. Guzti hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

8. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Dirulaguntza hau, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada dirulaguntzen berezitasunetako bat bateragarria ez izatea. Edozein modutan, gain finantzaketa ezinezkoa izango da 6. artikulua jasotzen duen moduan.

Ez dira diruz lagunduko udal honetako beste arlo batzuek diruz lagun ditzaketen jarduerak.

9. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Deialdiaren gaineko erabakia hartuta eta interesdunei erabakiaren gaineko jakinarazpena egin ondoren, hasieraz onartutako zenbatekoari dagokion %80a ordainduko da. Hau aurreordainketa izango da, eta ez da bermerik aurkezteko premiarik izango.

Ordainketa, transferentzia bidez, interesdunak emandako kontu zenbakian egingo da, gehienez, erabakia hartu den egunetik hurrengo hilabetearen barruan.

10. artikulua. Dirulaguntzaren zuriketa

1.- Onuradunek diruz lagundutako proiektuaren justifikazioa aurkeztu beharko dute 2024ko abenduaren 13an baino lehen, egun hori barne, eta hala dagokionean, onartutako zenbatekoaren gainerako %20a ordainduko da.

2.- Justifikazioa, kontu justifikatibo bidez egingo dena, honako datu eta agiriek osatuko dute:

- a. Ekintza bakoitzaren txostena. Honetan, betetze-maila, ekintzari emandako hedapena, arrakasta, partehartzea... adieraziko dira.
- b. Publikazioak eta kartelak, esku-orriak e.a. Ale bana, non udalaren armarrria agertuko da ekimenaren babesle dela adieraziz.
- c. Memoria ekonomikoa egindako jardueren kostua zehaztuz, honako agiri hauez osatua:
 - Jarduerari dagozkion diru-sarreraren eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzailea identifikatuta agertuko denean eta agiria, zenbatekoa, egin zeneko data, eta ordainduta badago, ordainketa-eguna. Dirulaguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, desbiderapenik egon bada.
 - Fakturen kopiak edo merkataritza-trafiko juridikoan frogatutako balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agirien bidez, aurreko paragrafoan aipatu den zerrendan agertuko direnak, eta ordaindu izanaren agiria.

- Zerrenda bat diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jasotako beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen informazioa zenbatekoa eta jatorria zehaztuz.

11. artikulua. Dirulaguntzaren publizitatea (onuradunak)

Erakunde onuradunek Elorrioko Udaletik jasotako dirulaguntzaren publizitatea egingo dute uztailaren 21eko 887/2006 EDak, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onartzen duena, aurre ikusten duenari jarraituz.

Horretarako, onuradunek Elorrioko Udaletik jasotako dirulaguntzaren berri emango dute erabiltzen duten edozein hedabidetan (aldizkari, esku-orriak, kartelak...).

Dirulaguntza jaso duen programak beste dirulaguntza batzuk jaso baditu eta onuraduna behartuta balego egoeraren gaineko publizitatea ematera, emandako dirulaguntzaren gaineko bitartekoak eta garrantzia beste diru iturri batzuei eman zaien bardinak izango dira.

12. artikulua. Itzultzea

Itzulpena, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duten moduan egingo da.

Edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, itzulpena ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da. Bardin egingo da gain finantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

13. artikulua. Datu-babesa

Elorrioko Udalak (aurrerantzean, "Udala") (IFZ: P-4803900-B; helbidea: Herriko plaza z/g, 48230, Elorrio, Bizkaia) emandako datu pertsonalak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legitimatzen duen oinarria da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorretik eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretutik eratorritako lege-betebehar bat betetzea.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie emango, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharrik edo interes publikorik izan ezean.

Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu legezko epe batean, erantzukizun motaren bat eska dakiokenean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatzen diren datuak lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko behar-beharrezkoak direnak dira; beraz, datu horiek ematen ez badira, Udalak ezingo du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, datuen aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, honako helbide honetara idatzizko eskaera bidaliz: alkatea@elorrio.eus. Interesduna harremanetan jarri ahal izango da Udaleko Datuak Babesteko Ordezkararekin, dpdelorrio@unive.es helbide elektronikoan.

Halaber, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzula.



Elorrioko udala

14. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauean aurreikusi ez den guztirako Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 38/2003, legea garatzen duen Erregelamenduak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

I.ERANSKINA / ANEXO I

ESKABIDE-ORRIA / INSTANCIA PARA SOLICITUD

ESKATZAILEA – SOLICITANTE

Izen-abizenak – Nombre y apellidos	NAN - D.N.I.
Helbidea – Domicilio	Tfnoa. – Tfno.
Kargua – Cargo	Helbide elektronikoa – Correo electrónico

HONAKO ELKARTE HAU ORDEZKATZEN DUELA – EN REPRESENTACIÓN DE LA ENTIDAD

Izena – Denominación	NIF – C.I.F.	
Helbidea – Domicilio		
Tfnoa. – Tfno.	Faxa - Fax	Helbide elektronikoa – Correo electrónico

PROIEKTUAREN IZENA – DENOMINACIÓN DEL PROYECTO

Ekintza / Actividad	Sarrerak / Ingresos	Gastuak / Gastos
1.-		
2.-		
3.-		
4.-		
5.-		
6.-		
7.-		
8.-		
9.-		
10.-		
Guztira / Total		



Elorrioko udala

DIRULAGUNTZA SARTZEKO DATUAK: - DATOS PARA EL INGRESO DE LA SUBVENCIÓN:

IBAN zenbakia / N.º IBAN

E	S																					
---	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Aurkeztu beharreko dokumentazioa egiazta ezazu orri honen atzeko aldean.

Compruebe al dorso la documentación a adjuntar.

Ekarri beharreko dokumentazio eta dirulaguntza jasotzearekin batera hartzen diren konpromisoak atzeko aldean irakur itzazu.

Vea al dorso la documentación a adjuntar y los compromisos que se adquieren al obtener la subvención.

Elorrio, _____

(data – fecha)

(sinadura - firma)



Erantsi beharreko dokumentazioa - Elkartearen arduradunaren edo bere ordezkoren NAN (fotokopia). - Egitasmoaren jatorrizkoa. - Gastu eta sarreren aurrekontua. - Beste eskaeren edo dirulaguntzei buruzko adierazpena. - Zerga-bidezko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzearen ziurtagiriak. - Kasu bakoitzari dagokion dokumentazio osagarria urteko deialdiaren arabera. Dirulaguntza jasotzearekin batera hartzen diren konpromisoak - Egitasmotik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzea. - Behar diren baimenak lortzea. - Egitasmoa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak Udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster. - Dirua gastatzen ez bada, dirulaguntza itzultzea. - Helburuak funtsean aldatuz gero, dirulaguntza itzultzea. - Udalak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko arauetara men egitea. Datuen babesa Elorrioko Udalak (aurrerantzean, "Udala") —P-4803900-B IFZ zenbakiduna eta helbide hau duena: Herriko plaza, z/g 48230, Elorrio, Bizkaia)—emandako datuak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legezko betebeharrak bat	Documentación a adjuntar - DNI de la persona responsable o representante de la entidad (fotocopia). - Original del proyecto. - Presupuesto de ingresos y gastos. - Declaración sobre otras solicitudes de subvenciones. - Documentación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. - Documentación complementaria de cada caso, según convocatoria anual. Compromisos que se adquieren al obtener la subvención - Asumir las responsabilidades que se deriven del programa. - Obtener todas las autorizaciones necesarias. - Comunicar al Ayuntamiento cualquier eventualidad en el desarrollo del programa en el momento en que se produzca. - Devolver la subvención si el gasto no se produce. - Devolver la subvención si se comprueba una modificación sustancial de los fines para los que se concedió. - Cumplir todos los requisitos que el Ayuntamiento indique y la normativa aplicable. Protección de datos El Ayuntamiento de Elorrio, (en adelante, "Ayuntamiento"), con NIF N°P-4803900-B, y domicilio en Herriko plaza z/g (48230) Elorrio, Vizcaya, tratará los datos personales facilitados con la finalidad de gestionar la
---	--



betetzeko legitimatzen da. Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie emango, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharrak edo interes publikorik izan ezean. Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu legezko epe batean, erantzukizun motaren bat eska dakiokenean. Dirulaguntzen deialdi honetan eskatzen diren datuak lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko behar-beharrezkoak direnak dira; beraz, datu horiek ematen ez badira, Udalak ezingo du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik. Nolanahi ere, interesdunak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, datuen aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, honako helbide honetara idatzizko eskaera bidaliz: alkatea@elorrio.eus. Interesduna harremanetan jarri ahal izango da Udaleko Datuak Babesteko Ordezkararekin, dpdelorrio@unive.es helbide elektronikoan. Halaber, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzula.	presente convocatoria de subvenciones, siendo la base que legitima dicho tratamiento el cumplimiento de una obligación legal. Dichos datos únicamente serán comunicados a terceras prestadoras de servicios estrictamente necesarios, y no serán cedidos a terceras partes, salvo obligación legal o interés público. El Ayuntamiento de Elorrio conservará los datos personales durante el plazo legal en el que pudiera serle exigible algún tipo de responsabilidad. Los datos solicitados son los estrictamente necesarios para la correcta consecución de la finalidad antes informada, de modo que, en caso de no facilitar dichos datos, el Ayuntamiento no podrá garantizar su correcta participación en el procedimiento. En cualquier caso, la parte interesada podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación, mediante petición escrita remitida a alkatea@elorrio.eus. Aquella podrá ponerse en contacto con la Delegada de Protección de Datos (DPO) del Ayuntamiento, en la dirección de correo electrónico dpdelorrio@unive.es Asimismo, le informamos que tiene derecho a presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.
---	---



Elorrioko udala

ELKARTEAREN DATUAK – DATOS DE LA ASOCIACIÓN

Bazkide kopurua Nº de Socios y socias	Guztira- total		
	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Besteak Personas no binaria

LOKALAREN DATUAK – DATOS DEL LOCAL

☐ Elkartearen lokala Local propio de la asociación	☐ Udal jabegoko lokala Local facilitado por el Ayuntamiento	☐ Beste inoren lokala Local facilitado por otras
--	---	--

HERRITAREN PARTAIDETZA – PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Udalerriko beste elkarte batzuekin lan egiten du? ¿Colabora con otras asociaciones del municipio?	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Zeintzuk? ¿Cuáles?		
Udal Jarduerak (jaiak, ekitaldiak etab) antolatuz En la organización de actividades municipales (fiestas, actos, etc)	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Zeintzuk? - ¿Cuáles?		



ANIZTASUNAREN ETA ZEHARKAKO GAIEN TRATAMENDUA
TRATAMIENTO DE LA DIVERSIDAD Y DE LA TRANSVERSIDAD

Euskararen erabilera kontuan hartzen da? ¿Se tiene en cuenta la utilización del euskera?	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Nola? - ¿Cómo?		
Aukera berdintasunarekin erlazionatutako gaiak era zuzenean lantzen ditu elkarteak? ¿Se realizan actividades que traten específicamente temas relacionados con la igualdad de oportunidades?	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Zeintzuk? - ¿Cuáles?		
Aniztasun funtzionala lantzen duten gaiak jorratzen dira edo aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzendutako ekintzak burutzen ditu elkarteak? ¿Se realizan actividades cuyo tema es la "diversidad funcional" o están dirigidos específicamente a personas con diversidad funcional?	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Zeintzuk? - ¿Cuáles?		
Garapenaren eta migrazioaren lankidetzarekin erlazionatutako gaiak jorratzen dira edo migrantea den biztanleari zuzenduriko ekintzak burutzen ditu elkarteak? ¿Se realizan actividades relacionadas con la cooperación al desarrollo o la migración o específicamente dirigidas a la población migrante?	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Zeintzuk? - ¿Cuáles?		
13 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekintzarik antolatzen dira? ¿Se realizan actividades especialmente dirigidas a jóvenes de entre 13 y 35 años?	☐ Bai - Sí	☐ Ez - No
Zeintzuk? - ¿Cuáles?		



**PROIEKTUA, PROGRAMA EDO JARDUERA – PROYECTO, PROGRAMA O ACTIVIDAD
(OSO GARRANTZITSUA: EKINTZA BAKOITZEKO ORRI BAT BETE BEHAR DA – MUY
IMPORTANTE, RELLENAR UNA HOJA POR ACTIVIDAD)**

Izena - Denominación	
Eguna (k) – Día/s de celebración	Lekua(k) – Lugar/es de celebración

NORI ZUZENDUA DEN (zehaztu adinak) – PÚBLICO AL QUE VA DIRIGIDO (concretar edades)

☐ Biztanleak oro har Población en general	☐ Bazkideak Socios y/o socias	☐ Beste batzuk: _____ Otros:
--	--	---

PROIEKTUAREN JARRAIPENA ETA EGONKORTASUNA – CONTINUIDAD Y ESTABILIDAD DEL PROYECTO

Aurreko edizioen kopurua Nº de ediciones anteriores	Jarraipenari buruzko aurreikuspena - Previsión de continuidad	
	☐ Bai - Sí	☐ Ez -No
Ikusentzule kopurua Estimación de público		

BERRIKUNTZA -INNOVACIÓN

--

PROIEKTUAREN ERAGINA- REPERCUSIÓN DEL PROYECTO

☐ Herrian Local	☐ Eskualdean Comarcal	☐ Lurraldean Provincial	☐ Nazioan Nacional	☐ Nazioartean Internacional
--	--	--	---	--

BABESLEAK – PATROCINADORAS

Erakunde publikoak – Entidades públicas	Erakunde pribatuak – Entidades privadas
--	--

ERABILITAKO ZABALKUNDE BIDEAK – MEDIOS DE DIFUSIÓN EMPLEADOS

Publizitatea (kartelak, esku orriak, aldizkariak, komunikabideak) – Publicidad (carteles, folletos, revistas, medios de comunicación)
--



HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN AURREIKUSPENA

PREVISIONES DEL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES

Elorrioko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilpena normalizatzeko ordenantzaren 39.d art.: d) Udalaren dirulaguntzaz bultzatutako ekimen guztiek, derrigorrez erabili behar dute euskara kartel, esku programa, eta antzekoetan eta berdin ahozko jardueretan. Jende aurreko agerpenetan, megafonia erabiltzerakoan, oharrak zabaltzean, eta abar..., euskaraz egin beharko dute.	Normas para la normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento y Municipio de Elorrio, art. 39.d : “En toda actividad impulsada con subvención municipal, se ha de utilizar el euskera obligatoriamente en sus carteles, programas de mano y similares y también en sus manifestaciones orales. En las apariciones públicas, habrán de utilizar el euskera en las transmisiones mediante megafonía, difusión de avisos, etc.”
Oharra: Araua betetzen laguntzeko, Euskararen Udal Zerbitzuak hizkuntza aholkularitza zerbitzua eskaintzen du.	Aviso: Para el cumplimiento de la norma, el Servicio Municipal de Euskera ofrece servicio de asesoría lingüística.

HIZKUNTZA OFIZIALAK: ERABILERA IDATZIA (JARDUERAN ZEHAR ARGITARATUTAKO MATERIALETAN - LENGUAS OFICIALES: UTILIZACIÓN ESCRITA (MATERIALES PUBLICADOS EN LA ACTIVIDAD))

	Kartelak Carteles	Esku-orriak Folletos	Iragarkia prentsan Anuncio en prensa	Sarrerak edota gonbidapenak Entradas y/o invitaciones	Bestelakoak Otros
Euskeraz En euskera	☐	☐	☐	☐	☐
Euskeraz nagusiki Principalmente en euskera	☐	☐	☐	☐	☐
Hizkuntza bietan En las dos lenguas	☐	☐	☐	☐	☐
Gazteleraz nagusiki Principalmente en castellano	☐	☐	☐	☐	☐
Gazteleraz En castellano	☐	☐	☐	☐	☐



**HIZKUNTZA OFIZIALAK: AHOZKO ERABILERA JARDUNEAN ZEHAR - LENGUAS
OFICIALES: UTILIZACIÓN ORAL EN LA ACTIVIDAD**

	Aurkezpena Presentación	Musika Música	Besterik (zehaztu) Otros (concretar)
Euskeraz En euskera	☐	☐	☐
Euskeraz nagusiki Principalmente en euskera	☐	☐	☐
Hizkuntza bietan En las dos lenguas	☐	☐	☐
Gazteleraz nagusiki Principalmente en castellano	☐	☐	☐
Gazteleraz En castellano	☐	☐	☐



Elorrioko udala

UDALAREN ELKARLAN-BEHARRAZ INFORMATZEKO FITXA – FICHA PARA INFORMAR DE LAS NECESIDADES DE APOYO ESTRUCTURAL DEL AYUNTAMIENTO

Datu hauek Elorrion antolatzen diren jardueren informazioa osatzeko bakarrik erabiliko dira. Estos datos se utilizarán solamente para completar la información de las actividades organizadas en Elorrio.

JARDUERAREN IZENA ETA DATA – NOMBRE Y FECHA DE LA ACTIVIDAD

Deskribapena – Descripción

BEHARREZKO BALIABIDEAK – RECURSOS NECESARIOS

Baliabide pertsonalak – Medios personales

Baliabide materialak – Medios materiales

Leku edo instalazio publikoak – Espacios e instalaciones públicas

Bestelakoak – Otros



Elorrioko udala

II ERANSKINA/ANEXO II

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA /DECLARACIÓN RESPONSABLE

Nik, _____
_____.jn./andreak
NAN _____zenbakia dudanak
honako hau,

D./D.^a _____con DNI
nº _____,

ADIERAZTEN DUT (x markatu):

- ☐ Ez nagoela dirulaguntzak jasotzeko ezintasun egoeran, Elorrioko Udalak _____(data) BAOan argitaratutako oinarrien 3 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- ☐ Xede berbera finantzatzeko beste dirulaguntzarik eskatu edo eskatzeko asmoa ez dudala.

EDO

- ☐ Xede berbera finantzatzeko hurrengo dirulaguntzak eskatu(ko) edo jaso ditudala:

ERAKUNDEA /ENTIDAD

a. _____

b. _____

c. _____

- ☐ Egunean nagoela zergetako eta Gizarte-Segurantzarekiko betebeharretan.
- ☐ Hori guztia egiaztatzen duten agiri eta datuak dauzkadala eta Elorrioko Udalaren eskura jarriko ditudala hitzematen dut, hark eskatutakoan.

DECLARO (marca X):

- ☐ Que no concurre en ninguna de las circunstancias impositivas previstas en el art. 3 de las Bases publicadas por el Ayuntamiento de Elorrio en el BOB de fecha _____.
- ☐ Que no he solicitado ni tengo previsto solicitar otras subvenciones para financiar el mismo objeto.

ó

- ☐ Que he solicitado, tengo previsto solicitar o he recibido las siguientes subvenciones para financiar el mismo objeto.

ZENBATEKOA /CANTIDAD

- ☐ Que estoy al corriente de mis obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.
- ☐ Que dispongo de los datos y documentos que así lo acreditan y que me comprometo a poner a disposición del Ayuntamiento de Elorrio cuando sea requerido.



Elorrioko udala

- ☐ **Ez dut administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa.**
- ☐ **Betetzen ditudala Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak ezarritako betebeharrak guztiak.**
- ☐ Que no tengo sanción firme por vulnerar el derecho a la igualdad en vía administrativa, laboral o penal y por incurrir en discriminación por razón de sexo.
- ☐ Que cumplo con las obligaciones establecidas en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las mujeres

Elorrión, 202....ko _____ ren ____ (e)(a)n.
Sinadura